

Gregorio Monreal Zia (*Eman ta Zabal Zazu*)

Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak Giza Zientzien, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien alorretan egindako curriculum-ibilbidearen gorazarrez eman ohi duten sari ospetsuaren irabazlea Gregorio Monreal izan da, 2007ko edizioan¹. Sari hori dela eta, Monrealek berak 1997 eta 2005 bitartean zuzendutako *Revista Internacional de los Estudios Vascos - Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak (RIEV)* saridunaren giza ikuspegia eta alderdi intelektual eta profesionala erakutsi nahi izan ditu, artikulua honen bidez. Sariak eta bizitzaren deskribapenak ez dute haren biografia ixten, ordea, Gregorio Monrealek lanean jarraitzen baitu atsedenik hartu gabe hainbat erakunde akademikotan, ibilbide luzean metatutako jakintza guztia eskainiz. Ibilbide horrek, gorago aipatutakoaz gain, beste sari akademiko batzuk ere ekarri dizkio, hala nola Medikuntzaren Euskal Museoa berari eskainitako aretoa –Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegian dago Museoa, Leioan– eta herri-zapore ukaezina duten beste batzuk, esaterako Tafallako Txerri Jainkotiarren Ordena (1994) edo Lizarrako Irujo Etxeak emandako Manuel de Irujo saria (2004).

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian emana, 2007ko azaroaren 20an. Ekitaldian honako hauek izan ziren parte-hartzaile: Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektorea; Jean-Michel Uhaldeborde, Université de Pau et des Pays de l'Adour-eko lehendakaria; Julio Lafuente López, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea; Gabriel Insausti, Nafarroako Unibertsitateko ordezkaria; Juan Echano, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa; Juan Ignacio Pérez Iglesias, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea; Juan José Álvarez, Gipuzkoako UNEDeko zuzendaria; Sixto Jiménez, Nafarroako Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea; Gregorio Monreal bera; Juan M^o Otaegi, Euskadiko Kutxako lehendakaria; eta Juan José Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. Haien hitzaldiak *Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2007 Gregorio Monreal Zia Jaunari emate ekitaldiko hitzaldiak / Discursos del Acto de entrega del premio 2007 Eusko Ikaskuntza - Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales otorgado a D. Gregorio Monreal Zia*, izeneko liburuxkan jasota daude. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Arrasate: Euskadiko Kutxa, 2008.

1. GAREN, GAREAN LEGEZ

Lizarrako San Cristóbal Eguía Cruzat y Jaso leinu argiaren armarriko idazkuna honako esaldi ezagun hau zen: *garen, garean legez*². Garen bezalakoak izatea Estellerriko jendearen betiko ezaugarria dela dirudi. Horixe pentsarazten du, behintzat, Gregorio Monreal Ziaren biografiak. Etaion (Egaibar) jaio zen, 1942ko martxoaren 11n. Haren ama Deierri Ibarrean jaioa zen eta Carmen Cía Ros († 2008) zuen izena, eta aita Teófilo Monreal Maeztu († 1983) nekazari etaioarra zen. Zortzi anaia-arrebetatik bosgarrena zen: Celestino, Eugenio, Miguel, María Victoria, María Camino, Jesús Antonio eta María Dolores dira anaia-arrebok. Familia hark ez zuen batere zerikusirik 1942an bertan Francisco Francok berak idatzitako Raza izeneko pelikulak erakutsitakoarekin. Gerra osteko eskasia izan zuten ezaugarri Gregorio Monrealen haurtzaroak eta nerabezaroak, Egaibarren eta eskolapioen zenbait ikastetxeren artean bizi izan zituenak:

Berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan jaio ginelarik, anai-arreba anitzeko nekazari familia ugarietan, gurasoen beharra zela eta, ezin zitzaigun kontrolik edo murriztapenik ezarri. Pobre bizi arren, zoriontsuak ginen ia, kalean eta landan hazi baikinen, elkarren arteko adiskidetasun paregabean. Camusen iritzia berresten genuen praktikan: haurrak txirotasunean ere zoriontsu izan daitezke; betiere, premia arras larria izatera iristen ez bada.

Bestalde, eliza katolikoak hezia eta doktrinatu da nire belaunaldia. Lehen-dabizi, eskolan eta parrokiako katekesian. Baina bada gero eta ahaztuxeago dugun datu garrantzitsu bat: gerra osteko garaian, komentu eta seminarioen bidez promozionatu ziren gizarte nahiz kultura mailan Nafarroa erdialdeko nekazari-erri semeak. Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako garapen ekonomikoa, erlijio erakundeetan hezirik milaka lagunek burutu zuten. Beste edozein motatako hezkuntzak bezala, komentukoak ere bazituen argi-itzalak: batetik, altruismoa eta eskuzabaltasuna sustatzen zituen, baita esfortzua eta talentua balorazten ere, baina, bestetik, neurrigabeko idealismo irreal bat sortzen zuen. [...]

Herrietako bizitza gogorra baizik ez genuenontzat ezagutzen, hura zen munduetarik hobereña³.

Nerabzaroko nortasuna eskolapioen ikastetxeetan itxuratu zuen, Tafallan, Lizarran eta Orendainen. Gregorio gazteak prestakuntza humanistiko egokia jaso zuen legelari eta historialari izateko bokazioa aurrera eramateko. Hala, haren izena merindadeko legelari eta historialarien zerrendan sartu zen, besteak beste, Lacarrarekin eta Irujorekin. Eta ez da harritzekoa Gregorio Monrealek gehien miretsitako figura politikoetako bat Manuel de Irujo izatea. Oso gertutik ezagutu zuen, Senatuan. Izan ere, Gregorio Monreal,

2. Familia horretakoa izan zen frai Diego (1524-1578), María Cruzat y Jasoren semea eta Frantzisko Xabierkoaren arreba María de Jasoren biloba. Haren idatzien maila zela-eta, Urrezko Mendeko egile mistiko aszetiko nagusietakotzat hartzen dute.

3. MONREAL ZIA, Gregorio, Eusko Ikaskuntza – Euskadiko Kutxa sariketako hitzaldia, *Ibid.*, 33-34. or.



Zuzenbidean Lizentziadunen graduazioa. Deustuko Unibertsitatea, 1966ko ekaina



Gregorio Monreal, Marian Zarraonandia eta bere semeak Eneko eta Haritz

batxilergoan zegoela, “kutsatu” egin zen “euskalduntasunaren biruzaz”. Bazegoen horretarako joerarik familian, eta haren militantzia Unibertsitateko garaian loratu zen oso-osorik. Zuzenbide ikasketak Deustuko Unibertsitatean egin zituen. Ikasten zuen bitartean hainbat lanetan aritu zen, eta baita aurretik ere, hamasei urte zituenetik lanean dihardu baitu. Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatu zen 1966an, eta hurrengo urtean, bertako Praktika Juridiko Eskolan diplomatu zen. Hantxe egin zituen doktoretzako ikastaroak, eta irakasle ospetsuen eskolak hartu zituen. Haien artean, Andrés E. de Mañaricúa historialaria eta Juan de Churruca erromanista aipa daitezke. Bizkaiko hiriburuan 1968ko belaunaldi hartako amets, ilusio eta ekintzen zurrumbilo hura bizi izan zuen. Garai hartantxe Marian Zarraonandia bizkaitarra ezagutu

zuen, harekin ezkondu eta Haritz eta Eneko semeak izan zituzten. *Argia* aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean adierazi zuenez, “Bizkaiarekiko lotura ez da soilik intelektuala, ez; emozionala da, existentziala”⁴.

2. IRAKASLE LANA

Gregorio Monreak Deustuko Unibertsitatean bertan ekin zion irakasle-lanari, irakasle alboko gisa, lizentziatu eta hurrengo urtean (1967). Hantxe jardun zuen lau urtez, Andrés E. de Mañaricúarekin, eta irakasle horren lan historiografikoak nafarraren ikerkuntza-ildo batzuk baldintzatu zituen ondorengo urteetan. 1970 eta 1972 urteen artean, berriz, Zuzenbidearen Historiako irakaslea izan zen Bilboko San Raimundo de Peñafort Akademian.

1971ko udazkenean, Gregorio Monreal harremanetan jarri zen aita Gonzalo Martínez Díezekin. Horrek Donostiako Fakultateko Zuzenbidearen Historia katedra irabazi zuen aurreko urtean, eta eratzen ari zen Fakultate hartako dekanoko bihurtu zen⁵. Ardura hori dela eta, irakasgaia emateko laguntzaile bat behar zuen, eta irakasle nafarra eginkizun hari lotu zitzaion 1972an, eta baita Erromatar Zuzenbideko irakasle alboko lanari ere. Unibertsitate Konplutentsean doktoretza lortu bezain laster (1973), Zuzenbide Kanonikoko agregazio bat bereganatu zuen. Azken batean, Departamentuan eskuragarri zeuden kontratuen bidez irakasleari ekonomikoki laguntzea zen kontua, baina izendapenen bidez aipatutako irakasgaietan benetako inplikaziorik izan gabe, haren profil akademikoa Zuzenbidearen Historiari lotuta baitzegoen inolako zalantzarik gabe. Ardura horietaz gain, 1972. eta 1973. urteen artean Donostiako Fakultateko idazkaria ere izan zen.

1974ko urrian, Gonzalo Martínezi jarraituz, Valladolideko Unibertsitatera joan zen, han irakasle alboko bitarteko gisa kontratatatu baitzuten. Ikasturte hartan, Unibertsitate Konplutentseko Zuzenbide Fakultatean oposizioak antolatu zituzten eta Gregorio Monreak alboko irakasle postua lortu zuen bertan. Valladolideko plaza aukeratu zuen, bitarteko gisa hartan baitziharduen jada, eta 1976ko apirilean beste oposizio bat atera zuen, kasu horretan irakasle agregatu gisa, garai hartako irakaskuntzan katedrari zegokion postua baitzen, eta Extremadurako Unibertsitatera abiatu zen. Caceresen egon zen urte hartako ekainetik 1977ko martxora bitartean, eta bere karguaz gain, Zuzenbide Fakultateko idazkaria ere izan zen. Ordutik aurrera, lekualdatze-lehiaketa bati esker, Madrileko Unibertsitate Konplutentsera heldu zen. Han, Juan Manzano eta Rafael Gibert irakasleak ezagutzeko eta tratatzeko aukera eta zorzea izan zuen, eta Alfonso García Gallorekin ere harremanak sakondu zituen. Ikasturte hartako hondarreko denbora eta hurrengo ikasturte osoa irakiten ari zen Fakultate hartan igaro zituen eta hango giro nahasian parte

4. ELUSTONDO, Miel A., Pertsonaia: Goio Monreal: “Hizkuntza bezain inportante izan dira gure instituzio historikoak”, *Argia*, LXIX. urtea, 2052. zenbakia, 2006ko irailaren 3a, 12. or.

5. Vid. Gregorio MONREALek berak egindako glosa: *Gonzalo Martínez Díez*, erretiroko biografia-aipamena, *Anuario de Historia del Derecho Español* (1993-94), 1417-1422. or.

hartu zuen, Trantsizioko gorabeherak inon ez bezala bizi izan baitzituzten han. Klaustroko kide askok, aldaketa politikoaren prozesuarekin konprometiturik, lehenengo hauteskunde demokratikoetan parte hartu zuten. Eta irakasle gazte hura senatari aukeratu zuten Gipuzkoatik urte hartako ekainean, baina geroago jorratuko dugu alderdi hori.

1978ko irailean Donostiako Zuzenbide Fakultatearen agregazioa eskuratu zuen, lekualdatze baten bidez. Garai hartan, Joaquín Salcedo Izu nafarra zen hango katedraduna. Donostiara lekualdatzea harrigarri samarra izan zen, Unibertsitate Konplutentseko izen handiko lanpostua utzi eta probintziako fakultate batera, Valladolideko Unibertsitate nagusiarekiko fakultate periferiko batera joatea esan nahi baitzuen. Baina barru-barruko itxaropen pertsonalari egotzi behar zaio erabakia, Euskal Herriarekiko eta Gipuzkoarekiko haren izenean baitzegoen Senatuan konpromiso sendoagatik eta haren familiaren etxea Donostian kokatzeagatik hartua.



Euskal senatarien taldea. 1978ko abuztua. Zutik eta ezkerretik eskuinera: Ramón Bajo, Manuel de Irujo, Ignacio Uría, Juan M^a Bandrés, Ignacio Oregui, Gregorio Monreal. Makurtuak: Federico Zabala, Juan M^a Bidarte, Mixel Unzueta

Senatuko eginkizunak 1979aren hasiera arte iraun zuen eta, haren ondorioz, Unibertsitateko jarduera moteldu egin zuen, bai Madrilan eta baita, ondoren, Donostian ere. Hala ere, bere ibilbide akademikoak beste bira bat eman zuen urte hartako maiatzean, Bizkaiko campuseko errektoreorde (1979-1980), Zuzenbide Fakultateko dekanorde (1980-1981) eta Erromatar Zuzenbide, Zuzenbidearen Historia eta Zuzenbide Kanokiko Departamentuko zuzendari (1980) izendatu zutenean. Geroago, Euskal Herriko Unibertsitate sortu berriko Errektoretzara heldu zen eta postu horretan 1981 eta 1985

bitartean jardun zuen. Bitartean, 1980ko azaroan, Fakultateko Zuzenbidearen Historiako katedra eskuratu zuen lehiaketa bidez.

Bi agintalditan UPV/EHUko errektore izanda egindako kudeaketa akademiko bizi eta erabakigarriaren ostean, giroz aldatzea erabaki zuen. Hala, 1985-1986 ikasturtean, Espainia eta Ipar Amerika Baterako Lankidetzak Batzordeak lagunduta, *Visiting Scholar* izan zen Estatu Batuetako mendebaldean, bai Nevadako Unibertsitateko (Reno) *Basque Studies Program*-ean, baita Berkeleyko Unibertsitateko *Law School*-ean ere. Ospe handiko zentro haietan Ipar Amerikako kultura murgildu zen eta hango zientzia- eta unibertsitate-sistemak ezagutu zituen. Ezagutza haiek ondorengo zeregin akademiko eta intelektuala baldintzatu zizkioten. 1986-1987 ikasturtean, Donostiako Zuzenbide Fakultatera itzuli zen. Aldi berean, 1992ko otsailetik 2000ra, Paris XII Unibertsitateko Zuzenbide Konparatuaren Historiako IAD (Ikasketa Aurreratuko Diploma) batean parte hartu zuen, hirugarren zikloko ikasleei frantsesez emanda. Esperientzia horiek argi eta garbi erakusten dute Unibertsitatearen “probintzializazioaren” etsaia zen irakasleak beste unibertsitate batzuetako departamentu eta institutu onak ezagutzeko borondate irmoa zuela. “Unibertsitateak edozein mugaren gainetik egon eta hedatu behar du”, esan zuen behin.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Gabriel Urralbururen gobernu sozialistak sortua, 1989-1990 ikasturtean ekin zion bere ibilbideari. Nafarroako Unibertsitateko (Opus Deik 1952an eratutako zentro pribatua) titulazio batzuekin lehian ez sartzeko borondate argiak baldintzatuta jaino zen. Hori dela eta, bokazio politetniko nabaria erakutsi zuen hasieratik eta bi karrera soilik eskaini zituen lurraldeko beste unibertsitatearekin lehian: Zuzenbidea eta Ekonomia Zientziak.

Zuzenbide ikasketak 1989-1990 ikasturte hartan bertan ematen hasi ziren. Promisio akademikoko lurra izanik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko lehenengo errektoreak ondoko unibertsitateko hainbat irakasleri eta Espainian han-hemen barreiatutako nafar jatorriko beste batzuei dei egin zien, edo profil jakin bat zutenei behintzat. Zuzenbidearen historialari bati –ez gure biografiako protagonistari– dei egin zioten, baina horrek azkenean uko egin zion karguari. Hortaz, Jesús Morales Arrizabalaga irakasle zaragozarrak kargua bitarteko izaeraz bete ondoren, 1995ean Zuzenbidearen Historiako katedra osatzeko lehiaketa-oposizioa ireki zen. Gregorio Monreal aurkeztu eta lortu egin zuen. Zuzenbidearen historialari nafarrak bere karrera akademikoari bukaera emateko sorterrira itzultzea erabaki zuen, Unibertsitate berri batera, bere esperientzia izugarria eta unibertsitate-bokazioa bertan eskaintzeko helburuz.

Azken urte hauetan irakaskuntzan eta ikerkuntzan egindako lanek erabaki hura zuzena izan zela egiaztatu dute. Gaur egun, Zuzenbidearen Historia, batik bat Nafarroakoa, sendotzeko erronkan murgilduta jarraitzen du han, Europako Goi Irakaskuntzako Eremuaren eskakizunetara egokituz eta nolabaiteko korporatibismoaren indarrari aurre eginez.

Munduari irekita egon da beti Monreal eta, 2005-2006 ikasturtean, Nevadako Unibertsitateko *Distinguished Scholarship William A. Douglass* dela-



Nevadako Unibertsitatea, Reno, 2005. William A. Douglas eta Gregorio Monreal

ko katedran gonbidatutako lehenengo irakaslea izan zen. Euskal ikasketei ekarpen nabariak egiten dizkietenei soilik egiten zaie halako eskaintzarik. Han, euskal pentsamendu tradizionalari buruzko monografia egin du eta, une hauetan, moldiztegi lan hori.

3. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LEHENENGO ERREKTOREA

Gregorio Monrealek Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzan egindako kudeaketa atal berezia merezi du bere biografia akademikoan. Gaztea bazen ere, esperientzia handia zekarren berekin: Senatua, Donostiako eta Cacereseko Fakultateetako idazkaritzak, dekanordetzak, departamentuko zuzendaritza eta, bereziki, Bizkaiko campuseko errektoreordetzan 1979az geroztik egindako kudeaketa. Ekintzako gizona zen, 1968ko euskal belaunaldiko idealak bere-bereak zituen:

Argi zegoen garai hartan indarrean zeuden erakundeak eraitsi behar zirela, herrialdea onartzeko edozein planteamenduren aurkakoak baitziren. Baina hezkuntza- eta kultura-erakunde berriak eraikitzeke orduan, hegoaldeetik zetozen eredu burokratikoak besterik ez genuen, legezko esparruak inposaturik zetozenak eta ia inork gogoko ez zituenak. Hala ere, haiek ere eskuraezinak ziruditen. Nahi, onena nahi genuen, baina egia esan, baldintzak ez ziren bikaintasuna erdiesteko egokienak, bizirik irauteko baizik, eta hori bagenekien guk. Aurreko belaunaldiko maisuek, gutxi baina handiek –asko zekitelako eta gizarteaz kezkatuta zeudelako ziren handiak–, erakutsi ziguten hobe zela erdipurdiko erakundeak eraikitzea, egin zitezkeen bakarrik, ezer ez edukitzea baino. Maisu haiek Mitxelena, Barandiaran, Lekuona, Mañaricúa, Goyenetché... ziren. Gauzatu zitezkeen formulek asegabetsuna eragiten ziguten, eta hura zela-eta, ekimenak sostengatzeko gehiengoak osatzea oso nekeza izaten zen. Egia da gure artean errealitatearen eta epe luzearen printzipioek erakargarritasun eta ospe eskasa dutela [...]

1968ko belaunaldiko batzuek, ni neu barne hartuta, zalantzak izanez gero, *commitment* [gizarte-ingurunearekiko konpromisoa] delakoaren premia lehenes-



UPV/EHUko errektoretza taldea. 1979ko urria. Gregorio Monreal, Gonzalo Martín Guzmán, Luis Mitxelena

ten genuen, *scholarship* [jakintza zentzurik zabalenean] lasai eta ekoizkorragoan jardun beharrean. Zuzen edo oker egongo ginen –eta, kasu guztietan, gure curriculum akademikoen kaltean–, baina bi hamarkadetan lehentasuna eman genion Euskal Herrian mundu guztiari nor bere lana egitea ahalbidetuko zion erakunde-esparruak sortzeko konpromisoari⁶.

Bizkaiko campuseko errektoreorde-izendapenak, gerora, errektore izatea ekarri zion, Martín Mateo aurreko errektorea ordezkatzeko zeuden hiru errektoreordeetako bat izan baitzen. Izan ere, Martín Mateok kargua utzi eta Alcanteko Unibertsitatera joan zen. Monrealek berak honela gogoratzen du: “Errektoreak ezin izan zuen bere ondorengoa izango zen ordezkorik aurkitu, eta garaiz ihes egiten jakin zuen”. Euskal Herriko Unibertsitatea presio-eltze bat zen garai hartan eta, 1980ko urtarrilean, Gregorio Monrealek dimisioa aurkeztu zuen, egoera kontrolaezina zelakoan. Harako ikasturte hura honela deskribatzen du berak:

Baliabide materialen eta giza baliabideen defizitak eta inguru sozialaren berezko gatazkak zerikusia izan zuten erakundea gobernatzeko arazoekin. Hausturaren aldeko mugimendu indartsua zegoen, nahiko ondo antolatua. Ikasleen ordezkaritza ia osoa zuten eta aldeko asko zituzten klaustroan irakasle ez-numerarioen eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkarien artean. Haien aldarrikapenak honako hauek ziren: berezko irakasleria, hizkuntzaren erabilerak akademikoa arautzea eta unibertsitate demokratikoa, hau da, fun-

6. MONREAL ZIA, Gregorio, *Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa sariketako hitzaldia*, *op. cit.*, 35. or.

tzionamendu asanblearioa izango zuen unibertsitatearen inguruko ideia zehaztu-gabea. Nolanahi ere, sektore erreformista baino askoz sustraituago zegoen klaustroan. Azken hori soziologikoki handiagoa izan arren, ez zuen erreferentziarik eta elkarerik. Harrigarria bada ere, inork ere ez zuen protestarik egin Unibertsitatea bururik gabe geratu zen urtean, baina kaos hartan nolabaiteko ordena jartzeko egindako edozein ahaleginen aurka erantzuteko makineria berehala jarzen zen abian⁷.

Urte beraren bukaeran, Unibertsitatea ageriko bururik gabe zegoela, Klaustroak Gregorio Monreal Errektoretzarako proposatzea erabaki zuen ia aho batez, aldez aurreko aurkezpenik egin gabe. Ezohiko zirkunstantzia haiek zirela eta, gobernu-programa bat aurkeztea eta lantalde bat eratzea erabaki zuen. Sufragio unibertsal bidez hautatu zuten, 1981eko otsailaren 24an, Tejero koronela Espainiako Gorteetan errenditu zen goiz berean.

Gregorio Monrealen Errektoretzako bi agintaldiak (1981eko otsaila - 1984ko apirila - 1985eko maiatza) Euskal Herriko Unibertsitatearen erabakigarrienak izan dira orain arte, Santiago de Pablok eta Coro Rubiok erakunde horri buruz egindako ikerketa xehakatuan agerian geratu den bezala⁸, edo Teodoro Flores Gómezek laburbildu zuen bezala. Azken horren hitzetan, Errektoretza hura

garai garrantzitsua izan zen Unibertsitatearen etorkizuneko garapen instituzionalarentzat, eta garai hartako oinarritzko ezaugarriak Gregorio Monrealen adorea, gogoia eta erantzukizuna izan ziren⁹.

Sei urte bizi haietako lanak utzitako legatua haren ahalegin ikaragarri eta eskuzabalaren erakusgarri argia izan da. Hasiera-hasieratik **Euskal Herriko Unibertsitateko Plangintza eta Garapen Batzordea** eta **Arabako eta Gipuzkoako campusetako Plangintza Batzordeak** sortzeko indarra egin zuen. Azpimarratzekoa da **best fakultate eta eskola berri** sorrarazi zituela, haiei dagokien higiezin, giza baliabide eta irakasleen hornidura barne hartuta. Aipatzekoak dira, haien garrantziagatik, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Gasteizko Filologia eta Geografia eta Historia Fakultatea bitan banatzea, Informazio Zientzien Fakultatearen sorrera –ordura arte unitate delegatua zen– eta Arkitekturako Goi Mailako Eskola Teknikoaren sorrera, ordura arte Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoko Arkitekturako GETen mendeko unitatean. Orobat, Ospitale Klinikoa eraikitzeke ahaleginak egin zituen eta Basurtuko eta Gurutzetako Ospitaleekin hitzarmenak sinatu zituen.

7. MONREAL ZIA, Gregorio, El XXV Aniversario de la creación de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. Antecedentes y contexto de 1980. 25 urte, 25 años. *Euskal Herriko Unibertsitatearen 25. urtemuga ekitaldia. Acto de Conmemoración del 25º Aniversario de la Universidad del País Vasco*, Artaza Jauregia, 2005eko otsailaren 25a, or. gabe.

8. DE PABLO, Santiago eta RUBIO POBES, Coro, *Eman ta zabal zazu. Historia de la UPV/EHU. 1980-2005*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005.

9. FLORES GÓMEZ, Teodoro, *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 1963-1993*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 1997, 82. or.



Jose M^a Lacarraren causa doktore izendapena. UPV/EHU, 1982-05-27

Haren zeregina erabakigarria izan zen **Unibertsitatearen decentralizazioa** gauzatzeko, campus periferikoei dagokienean. Arabako eta Gipuzkoako campusetako Plangintza Batzordeak eratu zituen –Udala, Aldundia, Eusko Jaurilaritza eta UPV/EHU zeuden ordezkaturak horietan– eta bilerak egin zituen hiri-plangintzako arduradunekin, campusak eta erreserba-guneak hirigintzaren aldetik zehazteko. Halaber, Arabako, Gipuzkoako (1981-XI-21) eta Bizkaiko (1983-VI-16) campusetako batzorde ordezkatzailleak sortu eta abian jarri zituen, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu zuen (1983-IX-6 eta 9), eta Arabako eta Gipuzkoako errektoreordetzak kokatzeko lokalak ireki zituen, matrikulak eta gestioak egiteko eta ikasleentzako informazioa emateko unitateak alboan zituztela.

Unibertsitatearen armarrria eta domina sortzeko oinarriak finkatu zituen (1981-XII-18) eta, azkenik, agindua Chillidari eman zion (1982-I-19). Harrez gero, erakundearen ikurra da. Armarrriaren lema, *eman ta zabal zazu*, Monrealek berak aukeratu zuen, haren ustez Unibertsitatearen eginkizuna izan behar zuena ezin hobeto adierazten zuelako.

Garrantzi handiagoa izan zuen **Unibertsitatearen esparru juridikoa** finkatzea. Kargua eskuratu zuenetik hilabete batzuetara, Klaustroaren araudia sortu zuen (1981-V-5). Hurrengo urtean, UPV/EHUan egindako lehenengo ohiko Klaustroa eratzeko araudia egin zuen, baita Unibertsitatearen Erreformatarako Legea (LRU) onartu aurreko lehenengo Klaustro eratzaillearena ere (1982ko apirilaren 1a eta 29a, hurrenez hurren). LRUren bidez (1983ko abuztua) Euskal Autonomia Erkidegoak Unibertsitatearen transferentzia eskuratu zuen. Eginkizun horretan lagundu zuen Gobernu Batzordeak, adierazpen instituzionalen bidez (1982-VI-1, 8 eta 23), baita errektoreak transferentzia horren premia adierazteko hainbat aldiz hartutako jarreraren bidez ere.

Baina Monrealek erdietsitako helbururik zailena Estatutuen erreforma izan zen. Izan ere, 1984an berrautapenera aurkeztu zenean, gobernu-programa

posibilistagoa aurkeztu zuen, Estatutuen prozesua burutzeko xedez. Inork ez zuen uste Euskal Herriko Unibertsitatean erreforma lor zitekeenik, baina Estatutuak onartu zituen Estatuko bigarren unibertsitatea izatea lortu zuen Monrealek. Beste dozena bat unibertsitateri, ordea, Ministerioak inposatu behar izan zizkien haien klaustroak horretarako gauza ez zirela. Prozesu gorabeheratsuen ondoren, LRUK aurreikusitako unibertsitate-erreforma gauzatzeko Klaustro eratzaile berria sortzea lortu zuen. Klaustro hark hauteskunde-arauak, Klaustroa eratzeko araudia eta funtzionamendu-arauak onartu zituen (1983-XII-5 eta 22). Orobat, Klaustro hark onartu zituen Estatutuak, aldeko 174 boto, kontrako 36 eta 7 zuri emanda, aurkeztutako 223 zuzenketak eztabaidatu ondoren. Estatutuak 1985eko martxoaren 22an argitaratu ziren.

Gregorio Monrealek lan handia egin zuen **antolakuntza akademikoaren** aldetik: Unibertsitatean irauteko araudia; Departamentu-egitura; Unibertsitate-institutuak; UBlaren eta Selektibitatearen antolamendua; Fakultateetan, Goi Eskola Teknikoetan eta AEBetan hainbat ikasketa-plan onartzea; Unibertsitate-eskoletako eta atxikitako zentroetako batzordeak sortu eta abian jartzea, eta Hezkuntza Zientzien Institutua berrantolatzea, besteak beste.

Haren agindupean **irakasleak** kontratatzeke barne-araudia ezarri zen UPV/EHU, lehenengo aldiz, eta segidako ikastaroetan osatzen joan zen. Hala, lehen unibertsitateetako bat izan zen irakasleak kontratatzeke arau



Mendikuntzaren Historia Mintegia. UPV/EHU, 1983. Gregorio Monreal, José Miguel Barandiaran, Julio Caro Baroja

objektiboak ezartzen eta aplikatzen. Irakasleria Hobetzeko Plana diseinatu eta burutu zuen, doktoretza-tesiak bideratzeko eta irakasleria egonkortzeko helburuz, haietako asko kontratatua baitziren. Beste unibertsitate batzuetan ez zegoen halako planik eta, EHU, indarrean jarraitzen du, eta ikerkuntzaren eremuan lankidetzak gauzatzeko eragin nabaria izan du. Horrez gain, unibertsitateko lan-jardunaldiaren ikuspegitik, gutxieneko betebeharrak kontrolatzeko sistema ezarri, Unibertsitateko irakasleen izendegia argitaratu eta 500 irakasle titular izendatzeko egokitasun-probak artikulatu zituen.

Bera errektore zela, Hezkuntza Ministerioak ezohiko bidez zientziaren eremuko pertsona nabariak katedradun izendatzea lortu zuen, hala nola Julio Caro Baroja, Carlos Blanco Aguinaga, Miguel Sánchez-Mazas Ferlosio, Manuel Tuñón de Lara eta Julián de Ajuriaguerra, eta Unibertsitateak aurki zitzakeen pertsonarik nabarmenenak katedradun gisa kontratatu zituen. Bestalde, honoris causa doktore izendatu zituen Manuel de Irujo y Olo, Pierre Laffite, Eugene Goihenetche, José María Lacarra, Justo Garate Arriola (1982), Enrique de Gandía, William A. Douglass (1984) eta John Chadwick (1985). Urte hartan, Euskal Herriko Unibertsitateak bere lehenengo urrezko domina eman zuen, nori eta Eduardo Chillidari.

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZP) jardura, prestakuntza eta sustapen profesionala garatzerako neurriak ere ezarri zituen Monreal errektoreak. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren Batzorde Mistoa (1981-IV-10) eta AZPko idazkaria eta gerente-ordea sortu zituen (1982-XII-10



UPV/EHUren Urrezko domina Eduardo Chillidari, 1985. Jose Manuel Castells, Ramón Labayen, Martín Ugalde, Imanol Murua, Luis Mari Bandrés, Gregorio Monreal, Eduardo Chillida

eta 1983-IV-22). AZPko eta Unibertsitateko Liburutegiko plantillak osatu zituen (1983-XII-10) eta kolektibo horren soldata Autonomia Erkidegoaren mendeko funtzionarioen soldatarekin homologatzea lortu zuen.

Ikaslegoari dagokionez, bekadun kolaboratzailearen figura sortu, hiru campusetan ikasleentzako informazio-unitateak ireki, espetxeratutako ikasleentzako irakaskuntza-zerbitzua indarrean jarri, Unibertsitateko garraioaren arazoak arintzeko neurriak hartu, hiru campusetako Kirol Zerbitzua sortu eta garatu, Olabeagako egoitza zaharberritu eta Etxexuko Terradas egoitza eratu zuen, beste egintza batzuen artean.

Azpmarratzekoa da, halaber, **ikerkuntzari** emandako indarra. Ikerkuntza Batzordea sortu zuen eta Errektoreordetza egituratu, baliabideak egokitzeko prozedura objektiboak ezarri. Unibertsitateko Liburutegiari behin betiko bulzada eman zion eta, horretarako, erosketen kualifikazioa eta kostuen atalkako azterketa egin zuen, baita finantzaketa-beharrei buruzkoa ere, aurrekontua handitu eta banatzeko irizpideak ezarri zituen eta Liburutegiko Batzordea osatu zuen, non programaren jarraipena egiteko erabiltzaileen ordezkariak parte hartzen zuten.

Ikerketaren alde egindako apustua agerian geratu zen Unibertsitateko Estatuak proposatu eta onartu zirenean, departamentuetako ikerkuntza-jardueren erregistroa eta neurtzea ezarri zirenean eta erakundearen urteko aurrekontuaren % 10 ikerkuntzarako eta ikerkuntza-azpiegiturarako (% 6) eta Unibertsitateko Liburutegirako (% 4) zuzendu zirenean. Neurri horiek, luzera, aipatutako jarduerak babesteko balio izan dute. Halaber, Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua sortu, antolatu eta abian jarri zuen.

Oso goiz, 1982an, Informatika Batzordea eratu zuen, irakaskuntzarako, ikerkuntzarako eta kudeaketarako baliabide informatikoak egokitu zituen eta eremu horretako etengabeko inbertsio-programa garatzeko aholkularitza-taldea abian jarri zuen. Urte hartan, departamentuetako ikerkuntza-jarduerak erregistratu eta neurtzeko metodoa ezarri zuen, zeinen arabera ikerkuntza-taldeen memoriak argitaratu behar zituzten. Orobat, LRUren ostean, unibertsitate-institutuen lehenengo erregistroa sortu zuen eta, horrez gain, haien jarduerari buruzko arazuko informazioa bildu eta institutu gehiago sortzeko hasierako tramiteak burutu zituen.

Unibertsitate-hedapenari eta **gizarte zibilarekiko harremani** ere berebiziko garrantzia eman zien. Horretarako, *British Institute* ekarri zuen Unibertsitateari –*British Council*ekin sinaturiko hitzarmenaren bidez–, eta hitzarmenak sinatu zituen Pabeko Unibertsitatearekin, Mexikoko Unibertsitate Autonomoarekin eta Nevadako Unibertsitatearekin (Reno, Amerikako Estatu Batuak). Orobat, Nazioarteko Harremanen Zuzendaritza sortu zuen eta hitzarmenak sinatu zituen Frantziako Enbaxadarekin eta Bilboko Frantziar Institutuarekin. Haren agindupean, Donostiako Udako Ikastaro ospetsuak jaio ziren (1982ko udaz geroztik), Gasteizko Nazioarteko Zuzenbide Ikastaroak (1981eko udaz geroztik) eta Unibertsitate Hedapenerako Ikastaroak Bilboko auzoetan (1983) jarri ziren abian.

Herrialdearekin hartua zuen konpromisoa agerikoa zen. Errektoretzan berrautatua izateko aurkezturiko programan, 1984an, uste osoa zuen Unibertsitatea Euskal Herri osoan heda zitekeela, Nafarroan artean unibertsitate publikorik ez zegoenean:

Legearen aginduz, erakundearen eremu jurisdikzionala gaur egun Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetara mugatuta dago. Hautagai honen iritziz, ordea, EHU nafar gizarteari ere irekita egon behar da, bertatik hainbat ikasle eta irakasle bereganatu baitu, eta berdin jokatu behar du Pirinioetatik Iparraldeko herritar anaien arazo soziokulturalei dagokienez¹⁰.

Eta etorkizunean onartzeko zeuden Estatutuetan “hizkuntzaren arazoa [...] arau-esparruari dagokionez” konpontzeko eskatzen zuen. Izan ere, Estatutuen VIII. kapituluan, euskararen erregimen juridikoa ezarri zuen Unibertsitatean, Euskara Institutuarena barne. Euskararekiko konpromisoa ere agerian geratu zen lehenengo Errektoretzatik, orduan eratu baitzituen Euskararen Kabinetea, Unibertsitateko Euskararen Batzordea, Lizentziatu euskaldunen prestakuntza-plana eta Bilboko eta Donostiako LHko eta OHoko ikastetxeetako irakaskuntza elebiduneko programa, eta sei katedra eta hamar agregazio sortu zituen euskaraz LHko eta OHoko ikastetxeetan.

4. HAREN ESPERIENTZIA BESTE ERAKUNDE AKADEMIKO BATZUEN ZERBITZUAN

Euskal Herriko Unibertsitateko buruzagitzan hartutako esperientzia beste erakunde akademiko batzuetara zabaldu zuen. Haien artean, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Institutua eta Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa aipa daitezke.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos 1918. urtean jaio zen, Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien ekimenez, Euskal Herrian berezko Unibertsitaterik ez egotearen gabezia betetzeko helburuz. Frankismoan debekatuta egon zen, baina Trantsizioan berpiztu egin zen, José Miguel de Barandiaran lehendakari zuela (1978-1991), sorrerako espiritua berreskuratzeko gogoz. Eusko Ikaskuntza sailetan egituratu zen eta lurralde guztietako euskal ikertzaileak bildu zituen. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, herrialdeko zazpi unibertsitateek sorrarazitako dinamismoak hala eskaturik, gizarte- eta kultura-premia berrietara egokitu beharrean zegoen Eusko Ikaskuntza. Hala ikusi zuen Gregorio Monrealek eta, bera lehendakari zela (1992-1996), erakundeak zientziaren eta akademiaren eremuetan ospea irabazteko ekarpen nabaria egin zuen. Sailei eta haien antolatutako jardueri izaera zientifiko handiagoa eman zien, baita Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusiei ere, hala nola XIII. Batzar Nagusiari, *Zientzia, Teknologia eta Gizarte-aldaketa Euskal Herrian* hartu baitzuen gaitzat. Lehendik zeuden argitalpenak sendotzeko ahaleginak egin zituen, haien artean

10. UPV/EHUko artxiboa, AM, “1979-1985eko Klaustroak” kutxa. *Cit.* DE PABLO, Santiago eta RUBIO POBES, Coro, *Eman ta zabal zazu*, *op. cit.*, 121-122. or.



Eusko Ikaskuntzako izendapena - Oñatiko Unibertsitatea, 1992. Gregorio Monreal, Manuel Olai-zola, Juan Plazaola



Oxfordeko Unibertsitatean Eusko Ikaskuntzaren Fellowship-en sarrera, 1996. Gregorio Monreal, Pedro Miguel Etxenike



Lekuona Saria Jorge Oteizari eman zitzaionean, 1996. Imanol Murua, Juan Garmendia Larrañaga, Gregorio Monreal, Jorge Oteiza

Revista Internacional de los Estudios Vascos - Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria (RIEV), sailen aldizkariak edo *Fuentes documentales medievales del País Vasco* izeneko bilduma. Bultzatu zituen, halaber, *Eleria, Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, Lekuona saridunen bio-bibliografiak eta *Euskara* aldizkariaren berrargitalpena. Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa sariak sortu zituen eta, haren agintaldian, Julio Caro Baroja (1995) eta Álvaro d'Ors (1996) izan ziren irabazleak. Bestalde, Lekuona saridunak honako hauek izan ziren: Francisco Salinas Quijada (1992), Xabier Diharce *Iratzeder* (1994), Adrián Celaya Ibarra (1995) eta Jorge Oteiza Enbil (1996).

Eusko Ikaskuntza nazioartera zabaldu zen, Pabeko eta Nevadako Unibertsitateekin lotura bereziak ezarriz eta Oxfordeko Unibertsitatean *fellowship* bat sortuz ospe handiko euskal akademikoentzat. Udal, ikastetxe, ikerketa-zentro eta antzeko erakundeekin ere hainbat hitzarmen sinatu zituen, baita Iberdrola S.A.rekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zientzia- eta teknologia-sistemen produkzio zientifikoari buruzko ikerkuntza bultzatzeko. Orobat, *Jakitez* eusko ikaskuntzen bigarren gradu ondokoa sortu zuen, lehentasunezko intereseko arloetan egituratua eta euskal kulturaren suspergarri gisa pentsatua.

Eusko Ikaskuntzari egindako ekarpenak zenbait urtez jarraitu zuen, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariko* buru izan baitzen (1998-2005)¹¹. Aldizka-

11. Julio de Urquijo bizkaitar handikiak sortua, 1907an, hiruhilabetekari gisa sortu zen hizkuntzalaritza, folklore, historia, bibliografia, literatura eta bestelako diziplinak jorratzeko artikulubasea eratzeko xedez. Haren helburua eusko ikaskuntzetan interesaturiko orori lan-multzto mardula eskaintzea zen. Gerra zibilaren ostean, 27 zenbaki argitaratu ondoren, RIEV, Eusko Ikaskuntzaren ofizialtasuna bezala, desagertu egin zen Espainian. Hala ere, 1987an berriz sortu zen argitalpena, Julio Caro Baroja zuzendari zela.

riaren bigarren etapan zuzendari izandako Julio Caro Baroja hil ondoren (1995), ordura arteko koordinatzaile Juan Garmendia Larrañaga zuzendari bihurtu zen, baina Gregorio Monrealek, erredakzio-kontseilu berriko partaide zela, aldizkariaren jarraibide nagusiak ezarri zituen, eta bera zuzendari bihurtu zenean, hiru urte geroago, jarraibideok indarrean iraun zuten. Zuzendari gisa, Etaioiko katedradunarentzat *RIEV* Eusko Ikaskuntzaren organo nagusia zen eta, Barandiaranek nahi zuen bezala, tresna ahaltsua izan behar zuen, eusko ikaskuntzak sustatzeko, beste lurralde aurreratuago batzuetako antzeko enpresen ildo nagusiekin lotzeko eta euskaltzaleen arteko lotura izateko. Aldizkariaren etapa berrian, hizkuntzalaritzari, antropologiari eta historiaurreari buruzko ohiko gaiez gain, diziplina berriak sartu ziren, hala nola ekonomia, soziologia, psikiatria eta beste batzuk. Artikuluak bereziki interesgarriak izateko joera hartu zuen, eta espezialitate bakoitzeko berezko artikuluak Eusko Ikaskuntzako *Sailen Koadernoetara* bideratu ziren. Joera hori aldizkariaren azken zenbakietan areagotu egin zen, gainera. Aldizkariak beste eskema bat hartu zuen eta hori ia aldatu gabe iritsi da oraingo egunetara. Hala, honako atal hauek hartu zituen: *Tribuna*, artikulu bereziak jasotzen dituena, *Reseña*, liburuen errezentsioak eskaintzen dituena; *Revista de Revistas*, beste aldizkari batzuetako eduki bibliografikoak erreproduzitzen dituena; *Bibliografía*, gai jakin bati buruzko edukiak erreproduzitzen dituena, eta *Noticia*, gizarteko albisteei eta gertaera akademiko nabarmenei buruzko albistegi moduko bat. Zuzendari berriaren ekarpen nagusietako bat *Tesis Doctorales* atala sartzea izan zen. Bertan, euskal unibertsitateetan seihileko bakoitzean irakurritako tesiak argitaratzen ziren, eta giza eta gizarte-zientzietarako interesgarrienak izan zitezkeen laburpena ere jasotzen zen¹². Horrez gain, *RIEVek* Zuzenbideari buruzko bi ikastaro ospetsu antolatu zituen hirugarren zikloko ikasleentzat eta prestakuntzan zebiltzan irakasleentzat: *Oñatiko Unibertsitatea 1999 eta 2000*, lehen mailako profesionalek emanak.

Gregorio Monrealek **Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Institutua** eratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, 1980an, euskal erakunde historiko-juridikoen gaineko ikerkuntza bultzatzeko xedez. Errektore aukeratu zutenean proiektua atzeratu egin zen eta, azkenean, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Institutua sortu zen (1987), aurretik aipatutakoa eta José Manuel Castells Zuzenbide Administratiboko katedradunak zuzendutako “Carmelo de Echegaray” Zuzenbide Administratibo eta Finantzarioaren Institutuak bat eginda. Institutuak 1993an ekin zion jarduera akademikoari, hasierako izena berreskuratuta, jardunaldi hauek antolatuz: *Euskal Herriaren Eskubide Historikoen egoerari buruzko jardunaldiak*. Hurrengo urtean honako hauek antolatu zituen: *Eskubide Historikoen Irakaskuntza Zuzenbide Fakultate-etako Ikasketa Plan berrietan eta Frantzia eta Espainia arteko mugari buruz ikertzeko jardunaldiak* (1995). Argitalpen-lanaren helburua, berriz, hainbat monografia argitara ematea izan zen. Abian egon arren, Institutuak ez zuen berrespen legalik, horregatik Euskal Herriko Unibertsitateak, legez, ez zuen

12. Cfr. MONREAL ZIA, Gregorio, Una historia de la Revista Internacional de los Estudios Vascos/Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria/Revue Internationale des Etudes Basques/International Journal on Basque Studies, *RIEV* (1907-2000). *RIEV*, 46-1 (2001), 11-46. or.

eratu 2000. urtera arte¹³. Ordudanik eta 2003. urtean desegin arte, hiru sinposio eta hainbat jardunaldi eta mintegi antolatu zituen Euskal Herriko lurraldeetako zuzenbide historikoari lotutako hainbat alderdiri buruz. Egindako ekarpenak *Notitia Vasconiae*, *Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Aldizkarian* argitaratu ziren. Aldizkari horrek bi zenbaki argitaratu zituen (2002an eta 2003an), Gregorio Monrealek zuzenduta.

Jarduera akademikoaren lekukoa **Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioak (FEDHAV)** hartu zuen, 2004. urtean. Fundazioko zuzendaria Monreal da eta, lehendakaria, José Manuel Castells. Fundazioak jarraitu du urtean sinposio bat antolatzen, *Iura Vasconiae*, *Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Aldizkaria* argitaratzen –orain arte lau zenbaki argitaratu dira–, nafar katedradunak zuzenduta. FEDHAVEN monografia bilduma zabaletik, Zuzenbide historikoari buruzko Humboldt seriearen hiru zenbakiak azpimarratuko ditugu, hiruak ere Gregorio Monrealek zuzenduak. Proiektu horien bidez eta, batez ere, *Iura Vasconiae* aldizkarian argitaratutako txostenen bidez, aldizkari zuzendariak foru-erakunderik esanguratsuenak aztertu nahi ditu eta, historialarien eta jurista positibisten artean hedatuz, ikertzeko ildo eta objektu berriak proposatu:

Ziur gaude urte gutxiren buruan herrialdeko multzo historiko-instituzionalaren eta egungo arazo autonomikoen mapa osatu samarra izango dugula, ikuspegi juridikotik. *In extenso* informazioari esker, *Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Historiaren* sintesia landu ahal izango dugu, espezialistek, ikasleek eta gure iraganaren eta orainaren ikuspegi orokorra izan nahi duten guztiek hain beharrezko dutena¹⁴.

5. JARDUERA POLITIKOA

Gregorio Monrealen jarduera politikoa, laburra baina bizia, Unibertsitateko klandestinitatean hasi zen. Franco hil ondoren, Euskadiko Sozialistak Elkartzeko Indarra (ESEI) izeneko alderdia sortzen parte hartu zuen. Alderdi sozialdemokrata eta abertzalea zen, bizitza laburra izan zuena: 1976ko uztailaren 21ean sortu eta Iruñean aurkeztu zen lehenengo aldiz, 1977ko otsailaren 19an. Monreal Gipuzkoako senatari aukeratu zuten Fronte Autonomikoaren izenean (EAJ, PSOE eta ESEI), 1977-VI-15 eta 1978-XII-29 bitarteko legealdi konstituziogilean. Euskal Senatarien Taldeko bozeramalearen ordezkaria izan zen Senatuan eta jarduera bizia burutu zuen Legebiltzarreko Taldeak Konstituzioari buruzko eztabaidaren inguruan aurkeztutako zuzenketak prestatzen eta defenditzen¹⁵, batez ere Konstituzioaren Lehen

13. Cfr. TAMAYO SALABERRIA, Virginia, Breve historia del Instituto de Derecho Histórico de Vasconia, *Notitia Vasconiae*. *Revista de Derecho Histórico de Vasconia*, 1 (2002), 7-28. or.

14. MONREAL ZIA, Gregorio, Presentación de la FEDHAV y del contenido de *Iura Vasconiae*. *Iura Vasconiae*. *Revista de Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia*, 1 (2004), 12. or.

15. Euskal Senatarien Taldearen izenean konstituzioaren testuari aurkeztutako zuzenketak defenditzeko berak egindako hitzaldiak hemen daude jasota: *Constitución Española, Trabajos Par-*

...

xedapen gehigarriak eskubide historikoen inguruan eragindako gorabehera esperpentikoa zela-eta.

Horrez gain, Zientzia Ikerkuntzako eta Hezkuntza eta Kultura Ikerkuntzako Batzordeetako kide aktiboa izan zen, eta gai horien inguruan jardun zuen Legebiltzarreko saioetan: 1977an, Picassoren “Guernica” Euskadira ekartzeko ez-legezko proposamenari buruz parte hartu zuen¹⁶, eta 1978an Espainiako Irrati Telebista zerbitzu publiko zentralizatua diruz laguntzeko 3.291.821,046 pezetako kreditu osagarriari buruz¹⁷ eta Gobernuak iritzia- ren eta adierazpenaren gainean zerabilen filosofiari buruz¹⁸. Halaber, hiru interpelazio egin zituen: bat bahitutako ondasunen inguruan¹⁹, beste bat Moncloako Itunak hezkuntzaren alorrean haustearen gainean²⁰ eta, azkena, Gobernuak Unibertsitateen Lege Orokorra onartzeko zuen asmoari buruz²¹.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren autonomiaren aurreko erregimena finkatzeko Legebiltzarkideen Biltzarreko Negoziazio Batzordeko kidea izan zen garai hartan –1977ko irailetik abendura– eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia idatzi zuen taldeko kidea izan zen, 1978ko azaroan eta abenduan²².

Hamarkada bat geroago, politika-eremura itzuli zen, Nafarroako Foru Legebiltzarrerako hauteskundeetan legebiltzarkide aukeratu baitzuten, 1987ko ekainaren 10ean. Azken esperientzia politikoa Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerkuntzako sailburuorde gisa izan zen, zazpi hilabetez (1991-II-26tik 1991-IX-25era). Ordudanik, Gregorio Monrealek jarduera akademikoan eta ikerkuntzan jarri ditu indarrak, nahiz eta politika grinaz bizitzen jarraitu, Nafarroarentzat euskal nortasuna lekua duen proiektu anitz baten alde, tokiko prentsan egindako apustuak erakusten duen legez.

...

lamentarios, Madril: Cortes Generales, 1980, 4 ale, 2980, 2982, 3055, 3057, 3064, 3070, 3072, 3165, 3168, 3170, 3179, 3206, 3263, 3264, 3267, 3270, 3405, 3680, 3689, 3708, 3727, 3738, 3845, 3853, 3855, 3871, 3872, 3873, 3879, 3891, 3896, 3897, 3904, 3905, 3907, 3978, 3981, 3995, 3996, 3999, 4000, 4052, 4058, 4066, 4069, 4084, 4090, 4163, 4170, 4171, 4181, 4230, 4247, 4252, 4259, 4329, 4367, 4376, 4404, 4406, 4407, 4434, 4475, 4489, 4490, 4510, 4629, 4651, 4699, 4702, 4729, 4730, 4748, 4796, 4797, 4800, 4810, 4952, 4954 eta 4978. or.

16. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 9. zk. 252. or.

17. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 6. zk. 288. or.

18. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 22. zk. 854 eta 855. or.

19. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 17. zk. 747. or.

20. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 29. zk. 1186tik 1188ra eta 1199tik 1201era or.

21. *Senatuko Saioen Egunkaria*, 34. zk., 1349 eta 1350. or.

22. Cfr. TAMAYO SALABERRIA, Virginia, *La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo (1975-1979)*, Donostia: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994.

6. IKERTZAILE JARDUERA

Gregorio Monrealen jarduera politiko biziari eta kudeaketa akademiko kementsu eta sortzaileari erreparatuta, harrigarria da aintzakotzat hartzeko moduko ikerkuntza-jarduera ere burutu izana. Haren ikerkuntza-ildoak honako hauek izan dira, batez ere: Bizkaiko erakundeak eta historiografia juridikoa, Nafarroako Zuzenbidea eta erakundeak, Iturrien edizio kritikoa, Pentsamendu politiko tradizionala, Udal Zuzenbidea, Merkataritza-askatasuna, Forutasunaren krisia eta euskal eskubide historiko deritzenak, Euskararen araubide juridiko historikoa eta Unibertsitatearen historia.

6.1. Bizkaiko erakundeak eta historiografia juridikoa

Gregorio Monrealek aita Gonzalo Martínezekin zuen loturari esker, ordura arte inork ere jorratu gabeko ikerkuntza-eremu batean sartzeko aukera izan zuen. Izan ere, maisu burgostarrak berebiziko interesa zuen Euskal Herriaren historian, garai hartan Erdi Aroko Arabari buruzko lana prestatzen ari zen-eta. Nafar historialariaren interesak, berriz, Bizkaira begira zeuden. Hainbat urte zeramatzan artxibategiak bisitatzen eta materialak jasotzen, Gernikan, Bizkaiko Foru Aldundian eta Jaurerriko udal-artxibategirik aberatsenetan ere (Balmasedan, Lekeitio eta Durangon), Estatuko artxiborik garrantzitsuenek gain. Horiez gain, argitaratutako iturriak eta gaiari buruz zegoen bibliografia urria ere ezagutzen zituen. Ordura arte, ez zegoen Bizkaiko Jaurerriko erakunde publiko guztien eboluzioari buruzko ikerketa sistematikorik. Monrealek berak gogoratzen du nola, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Luis Mitxelena hizkuntzalari handiak honako galdera hau egin zion Julio Caro Barojari, bazkari batean: “Baina, inork azalduko lidake zer demontre diren euskal foruak?” Eta antropologo ospetsuak, ordurako Euskal Herriaren historiari buruzko hainbat liburu idatzita zeuzkanak, ezin izan zion eman Erreterriako maisuari erantzun sinesgarrikerik edo borobilik.

Gregorio Monrealek arlo horretan egindako ekarpena funtsezkoa izan zen, eta doktoretza-tesi hura klasikoa dela esan genezake. Alfonso García Gallo zuzendu zion eta 1973ko otsailaren 23an defenditu zuen, Unibertsitate Konplutentseko Zuzenbide Fakultatean, eta epaimahaia aipatutako irakasleak eta Gibert, Manzano, García de Enterría eta Escudero irakasleek osatzen zuten²³. Argitalpenaren sarreran esaten zuen bezala, Erdi Aroaren bukaeran Bizkaiko Jaurerria izango zen lurraldean bizi zen giza populazioaren sustrai historikoak abiapuntu hartuta, jaun-boterea eratzeko prozesua zehaztu zuen. Gero, Bizkaiak, bertan bizi ziren kapareen kopurua zela eta, antzeko eraketen artean zituen berezitasunak azaldu zituen. Ondoren, hiribilduen fundazioa deskribatu zuen, baita haiek lurraldeko sistema juridiko publikoaren eta pribatuaren barruan sortutako bikoiztasuna eta hiri-gutunek hiribilduei emandako lurraldearen eboluzioa ere. Lehenengo zatiaren bukaeran, bando-

23. Hurrengo urtean argitaratu zen: *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el siglo XIII)*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundiaren Argitalpenak, 1974, LV-476 or. (Durangoko 1974ko IX. Euskal Liburu Azokako Lehen Saria).

kideen arteko borrokak eragindako haustura soziala azaldu zuen. Izan ere, borroka hark sakondu egin zuen aipaturiko bi blokeak bereizten zituen arraila. Ondoren, 1630eko Adiskidetzeari etorri zen, Bizkaiko Konstituzio Historian Aro Modernoari hasiera eman ziona. Aglutinatze-prozesuaren oinarritzko mugarrak finkaturik, bigarren zatian jaurerria osatzen zuten lurralde-elementuak deskribatu zituen: Lur laua, Hiribilduak, Enkarterriak eta Durangoko Merindadea. Bloke horietako bakoitzak Jaurerriko gobernu organo nagusiekin zeukan konexio juridiko-politikoa erakutsi zuen. Orobat, Bizkaiko lurraldearen aldameneko lurralde batzuek (haien artean, Orozkoko eta Laudioko haranak, Villaverde, Castro, Limpas eta Colindres) Jaurerriarekin zituzten harreman instituzionalak ere azaldu zituen. Hirugarren zatian helburua Batzarren ordezkatutako erakundeen, prokuradoreen eta Kongresuaren jardura formalarekin lotutako alderdiak aztertzea izan zen. Azkenik, Batzarren erakunde ordezkariek ziren Erregimentu Orokorraren eta Aldundien sorrera eta garapena azaldu zituen. Gregorio Monrealen monografia agorturik dago duela hamarkada pare bat, beraz, desiragarria izango litzateke beste argitalpen bat egitea, eta Lurralde Historikoko erakundeek bultzatzea nahi genuke.

Tesiaren ondorioz, txosten bat idatzi eta Espainiako Zuzenbidearen historialarien komunitatearen aurrean aurkeztu zuen, *Espainiako Zuzenbidearen Historiaren Astea* zela eta Donostian egindako biltzarrean, 1973ko apirilaren 13tik 15era²⁴.

Gaiari lotuta eta erabili gabeko ikerkuntzako materialak erabiliz, beste txosten bat aurkeztu zuen Bordelen, 1973ko maiatzaren 5ean, *Colloque International d'Etudes Basques* izenekoan, eta bost urte geroago Baionan argitaratu zen²⁵. Txostenaren gaia honako hau zen: zenbait organoren –Erregimentua eta Aldundia, hain zuzen– osaera aristokratikoak eta Batzar Nagusietako ordezkariek izatera herrikoiak eragindako gizarte-gatazka. Monarkiako organo zentralekiko harremanetan krisiak sortzen zirenean azaleratu ohi zen gatazka hori. Bizkaiaren iragana jorratzeko ildo horretan, 1986an lan mardula argitaratu zuen Bizkaiko Batzar Nagusien garapen historikoari buruz²⁶. Bestalde, *Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren egoerari buruzko jardunaldietan* (1993) lurraldeko historiografia juridiko publikoari eskainitako txostena argitaratu zuen, tresna ezin baliagarriagoa Bizkaiko Zuzenbide publikoari buruzko ikerketak egin nahi dituzten ikertzaile guztientzat²⁷. Halaber, Bizkaia du hizpide nagusi Josu Erkorekak egindako doktoretza-tesiaren edukiak. Tesiaren

24. Txostena urte hartako *Anuario de Historia del Derecho español* urtekarian argitaratu zen: El Señorío de Vizcaya. Origen y naturaleza jurídica. Estructura institucional, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 43 (1973), 113-206. or.

25. Algunos problemas de las instituciones públicas de Vizcaya en la Edad Moderna. *Actes du Colloque Internationale d'Etudes Basques, Bordeaux 3-5 mai 1973*. Bayonne: Société des Amis du Musée Basque, 1978, 19-33. or.

26. Desarrollo histórico de las Juntas Generales de Vizcaya hasta 1876. *Bizkaiko Batzar Nagusiak/ Las Juntas Generales de Vizcaya*, Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1986, 19-64. or.

27. Historiografía jurídica e institucional de Vizcaya. *Jornadas sobre el estado de la cuestión del Derecho Histórico de Euskal Herria*, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1995, 59-121. or.

izenburua da *Euskal Herriko Arrantzale eta Marinelen Kofradiak*, eta Gregorio Monrealek zuzendu eta emaitzazko argitalpenaren hitzaurrea idatzi du²⁸.

6.2. Nafarroako Zuzenbidea eta erakundeak

Duela gutxi arte, Gregorio Monrealek ia ez du ikerketa monografikorik egin bere sorterriko Zuzenbideari eta erakundeei buruz, nahiz eta Euskal Herriari buruzko egindako ikerketetan Nafarroa beti presente egon. Horren erakusgarri argia dira Nafarroako Gorteei buruz egindako gogoeta sakonak, aldi berean egindako bi lanetan²⁹, edo Gaztelak Araba, Gipuzkoa eta Duran-galdea konkistatu zitueneko analisia³⁰.

Horren salbuespena Tafallako Zuzenbide publiko historikoari eskainitako lan luzea da, 1986an egina, hiriari titulua eman zioteneko 350. urteurrenaren ospakizunez. Beharbada, Nafarroako udalerrri batean egindako analisi juridiko-instituzionalik onena da. Udalerrriaren ezaugarri juridikoak adierazi ostean, Goi Erdi Aroan nola sortu zen azaltzen du, udalerrri-identitatearen osagaien bidez (gaztelu-harresia, merkatua eta antolamendu politiko-administratiboa). Tafallako lehen forua (1066) aztertzen du, Nafarroako lehen municipalizazio-mugimenduaren adierazpen gisa, Tafallako 1157ko foru singularra Frankoen Foruen municipalizazio-mugimendu handiaren barruan sartu gabe. Ondoren azaltzen du nola Tafalla sartu zen Jaka-Lizarrako familia frankoan, 1427an. Lanaren azken zatian deskribatzen du Nafarroako hiri horren udal-sistemaren modernizazioa, 1630eko hamarkadan lortutako errege-kontzesioen bidez, batez ere Erriberriko Merindadetik bereizita eta lehen instantziako jurisdikzioa emanda. Hitz gutxitan, Nafarroako Erresumako ohiko udalerrri batek Erdi Aroan eta Aro Modernoan izandako eboluzio juridiko-publikoa ezagutzeko aukera ematen du lan horrek³¹.

Nafarroako Zuzenbide historikoari egindako azken ekarpena 2008aren bukaeran plazaratuko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren eskutik. *Textos histórico-jurídicos navarros. I. Historia Antigua y Medieval* du izena (*Nafarroako testu historiko-juridikoak. I. Antzinako eta Erdi Aroko Historia*). R. Jimenorekin batera ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako landutako bi liburukietatik lehenengo izango da.

28. Josu ERKOREKAREN lanaren hitzaurrea: *Las Cofradías de Pescadores y Mareantes del País Vasco*, Gasteiz: Nekazaritza eta Arrantza Saila, 1993, XV-XIX. or.

29. Cortes y Juntas en el área vasconica. *Los orígenes del Principado de Asturias y de la Junta General*, Oviedo: Junta General, 1998, 407-424. or. Las Cortes de Navarra y las Juntas Generales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. *Contributions to European Parliamentary History, [Minutes of the 47th Conference of the International Commission for the History of Representative and Parliamentary Institutions, Bilbo-Gernika, 2-6 September 1997]*, Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1999, 25-59. or.

30. 1200, una fecha significativa en la evolución de Vasconia, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, 45-2 (2000), 421-424. or.

31. El Derecho Público histórico de Tafalla, *Tafalla, 350 años como ciudad*, Tafalla: Tafallako Udala, 1991, 57-92. or.

6.3. Erakundeen historiaren sintesia

Nafarroako testu historiko-juridikoek agerian utzi dute Gregorio Monrealek bere ibilbide akademiko luzean zehar sintesia eta hedapen pedagogikoa lortzeko izan duen kezka. Hala, 1977an, erakundeei buruzko sintesia argitaratu zuen *Cultura Vasca (Euskal Kultura)* lan kolektiboan³². Proiektu hura, bestalde, ESEI bultzatu zuten intelektualei lotuta zegoen. Urte hartan, Nafarroako erakundeen historiaren eta gainerako euskal lurraldeekin duen loturaren laburpen argigarria eskaini zuen, José María Jimeno Juríok idatzitako *Navarra jamás dijo no al Estatuto vasco (Nafarroak sekula ez zion ezetz esan Euskal Estatutuari)* lanaren hitzaurrean³³. Horrez gain, ordenamendu tradizionalako askatasun konkretuen eta giza eskubideen sintesi bat egin zuen, giza eskubideei buruz Donostian izandako europar kongresu batean (1989)³⁴.

Bestalde, Euskal Zuzenbideari buruzko izaerari eta balizko originaltasunari buruz *Forum Deuston* emandako hitzaldia argitaratu zuen Deustuko Unibertsitateak, 1994an³⁵. Hitzaldi hartan, foru-erregimena desagertu arte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetako Zuzenbide Historikoaren eboluzioaren sintesia eskaini zuen, eta Zuzenbide tradizionala Espainiako eta Europako mendebaldeko ohiturazko zuzenbidearen barruan kokatu. Honako gai hauek landu zituen: Ohiturazko Euskal Zuzenbideak jasotako eraginak –lehenik, erromatarra eta germaniarra, eta gero, kanonikoa eta erkidea–, Gaztelako Errege Zuzenbideak eragindako inpaktu itzela, Bizkaiko ohiturazko zuzenbide pribatuak irautearen singularitasuna, eta Behe Erdi Aroan Gaztelaren barruan euskal entitate autonomoen eraketa. Ondoren, foru tradizionale-tako funtsezko erakundeak erakutsi zituen: kaparetasun unibertsala, berme indibidualak, familiaren izaera berezia eta bizitza publikoan parte hartzea –bai udal-eremuan baita lurralde-biltzarretan ere–. Berreskuratutako erakunde batzuk azpimarratu zituen, hala nola merkataritza-askatasuna, soldaduska-salbuespenak eta foru-pasea. Hitzaldiaren bukaeran, pentsamendu tradizionalean foruen justifikazioa eta aurreko mendeko sistemaren krisia aipatu zituen.

6.4. Iturrien edizio kritikoa

Gregorio Monrealek egindako ekarpen nabarienteko bat iturrien edizio kritikoa izan da, oso ibilbide berezia izan baitu. Agregazioa eskuratzeko opozizioetan, 1976an, *Edición crítica de las fuentes medievales del Derecho de Vizcaya (Bizkaiko Zuzenbidearen Erdi Aroko iturrien edizio kritikoa)* izeneko

32. Las instituciones vascas. *Cultura Vasca*, I, Donostia: Erein, 1977, 351-382. or.

33. *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco* obraren hitzaurrea, José María JIMENO JURÍO, Iruñea: Punto y Hora, 1977.

34. Sistema foral vasco y derechos humanos. *Los derechos humanos en Europa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala, 1989, 157-170. or.

35. El Derecho Histórico vasco y su originalidad. *Cultura Vasca*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994, 121-151. or.

lanaren inprenta-probak aurkeztu zituen Epaimahaiaren aurrean. Hain zuzen, Juan Núñez de Lararen Koadernoak (1342), Gonzalo Mororen Ordenantzak (1394) eta Foru Zaharra (1451) ziren iturri horiek. Aurkeztutako testuaren atzean eskuizkribuak bilatzeko lan eskerga zegoen, artxibo publiko eta pribatuetan egina, baita eskuizkribu haiek alderatzea, *Stemma* ezartzea eta testua finkatzea ere, dagokion aparatu kritikoarekin. Sarrerako ikerketa ere bazuen lanak. Hala ere, etenda geratu zen, alde batetik, Arxibo Historiko Nazionalean agertutako beste eskuizkribu batek aldaketa garrantzitsuak eragin zitzaizkela, eta bestetik, Monrealek Senatuan eta Errektoretzan sei urtez egindako lanagatik. Ikerketa Historikoei buruzko Kongresu baten Batzorde Antolatzailleak egindako prestaketa-bileran, esku artean zeukan obraren berri eman zuen eta, Errektoretzako lana bukatutakoan, berriz ere ekingo ziola adierazi zuen. Esan zuen, orobat, ordura arte erabili gabeko oinarritzko eskuizkribua Gernikaren zegoela. Baina bilera hartan parte hartzen ari zen kide batek informazioa jaso, transkribatzaile talde batentzat beka bat eskatu eta berehala argitaratu zuen eskuizkribua. Testurik onenaren edizioa eta edizio kritikoa gauza bera ez izan arren, bazirudien mila ordutik gorako lana galdu egingo zela.

Etsita, sarrerako ikerketa argitaratu zuen, 1985ean, Luis Mitxelenari egindako omenaldian, “Anotaciones para una edición crítica del Fuero Viejo de Vizcaya” (“Bizkaiko Foru Zaharraren edizio kritikorako idatzoharrak”)³⁶. Monrealen proiektuak harrera ona izan zuen Nevadako Unibertsitateko *Basque Studies Program*-ean. William A. Douglasssek eta Linda Whitek ingelese-ira itzuli ondoren, *The Old Law of Bizkaia (1452)* 2005ean argitaratu zen azkenik³⁷. Gaur egun, gaztelaniazko bertsioa prestatzen ari da, testuen alderatzeari dagokion aparatu kritikoarekin, ingelesezko bertsioak elementu hori gabe argitaratu baitzen, hizkuntz arazoak zirela eta.

2007. urtean, *Klasikoak* bildumak *Munduko zuzenbideen testu-bilduma* argitaratu zuen. Munduko testu juridiko garrantzitsuenen bilduma da, Gregorio Monrealek aukeratuak eta luze azalduak³⁸. Haren semeak, Haritz Monrealek, itzuli ditu testu gehienak, eta Itziar Alkortak berrikusi du edizioa. Aukeratutako testu gehienak Zuzenbide Publikokoak dira, garai batean eta gizartearen eboluzioan garrantzi handia izan dutenak. Bloke bakoitzaren sarrerako azalpenek agerian utzi dute Monrealek kultura juridiko unibertsalari buruz duen ezagutza handia. Horrenbesteko jakinduria ez da oso ohikoa ikasgai horretan, Espainiako aditu gehienek iberiar lurraldera mugatzen baitute haien begirada, Pirinio, Finisterre edo Gibraltarretik urrunago ikusteko gauza ez direla.

36. Anotaciones para una edición crítica del Fuero Viejo de Vizcaya. *Symbolae Ludovico Mitxelena Septvgenario Oblatae*, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985, 1203-1212. or.

37. *The Old Law of Bizkaia (1452)*. Introductory study and critical edition by Gregorio Monreal Zia; translated by William A. Douglass and Linda White, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada, 2005.

38. *Munduko zuzenbideen testu-bilduma*, Bilbo: Klasikoak, 2007.

Dokumentu-iturriak argitaratzeko ardurak bultzaturik, asmo handiko proiektuak abian jartzeko prozesuetan parte hartu du, hala nola Gipuzkoako eta Arabako Batzarretako eta Aldundietako aktak³⁹, Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes documentales medievales del País Vasco (Euskal Herriko Erdi Aroko Dokumentu Iturriak)* eta *Bibliotecas forales (Foru Liburutegiak)*. Azken bilduma hori laster argitaratuko da, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomi-koa Aztertzeko Fundazioaren eskutik.

6.5. Pentsamendu juridiko tradizionala

Gregorio Monrealen gogoko gaietako bat pentsamendu politiko tradizionalarekin lotutakoa da. Ildo horretan, 1980. urtean, XVI. mendeko euskal pentsamendu tradizionalaren ezaugarriak azaltzeko helburuz lan bat argitaratu zuen, García Gallo irakasleari eskainitako *Anuario de Historia del Derecho Español* urtekarian⁴⁰. Ildo beretik jarraitu zuen lanean eta, 1982an, Arabako Erdi Aroko erakunde publikoek Aro Modernoko arabarren pentsamendu politikoan izan duten eragina ikertu zuen, Gasteizen egindako *Ikerketa Historikoen Kongresuaren* bukaerarako ikasgai-txostenean⁴¹.

1992an, pentsamendu politiko tradizionalaren gaiari ekin zion berriro, aita Manuel de Larramendi jesuitak XVIII. mendearen erdialdean forutasunari buruz zuen ikuspegia aztertuz, bera baitzen Espainiako mende hartako intelektualik nabarmen eta harrigarrienetako bat. Jesuita andoaindarraren eskuizkribu politikorik interesgarriena bahitua izan zen Estatuko Idazkaritzaren aginduz, 1764an, eta gordeta egon zen harik eta Elías de Tejada katedradun sevillarrak Artxibo Historiko Nazionalean aurkitu zuen arte. Gregorio Monrealek, bere artikulu luzean, borbondarren garaiko forutasunaren testuinguru historikoaren analisisia eta Larramendik foruekiko izan zuen konpromisoa oinarri hartuta, haren forutasunari buruzko pentsamenduaren corpusaren gai nagusiak aztertu zituen. Lehenik eta behin, oinordetza tradizionala eguneratzea –tubalismoa, erlijio naturala, zuzenbide autoktonoa, kaparetasun unibertsala eta Gaztelan borondatez sartzeara–. Lanaren zati zentralak Larramendiren ekarpen nagusia osatzen duten lau gai handiak ikertzen ditu: lehenik, euskal lurraldeen, batez ere Gipuzkoaren, eta erregearen artean hitzartutako erregimenaren kontzepzioa; bigarrenik, Foruen zinari emandako balioa; hirugarrenik, Foruen balizko aldaketak, hitzartuak zein alde batekoak,

39. *Gipuzkoako Batzar eta Aldundiak* obraren lehen bolumenaren hitzaurrea, probintziako organo politiko-administratiboaren akta-liburuen edizioa, Luis María DÍEZ DE SALAZAR eta María Rosa AYERBE IRIBAR, Donostia: Batzar Nagusiak, 1990, XI-XVI. or.

40. Anotaciones sobre el pensamiento político tradicional vasco en el siglo XVI, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 50, (1980), 971-1004. or. Ingelesez ere argitaratua: Annotations regarding Basque traditional Political Thought in the Sixteenth Century. *Basque Politics: A Case Study in Ethnic Nationalism*, Reno (Nevada): Associated Faculty Press and Basque Studies Program, 1985, 19-51. or.

41. Incidencia de las instituciones públicas de Álava del Medievo en el pensamiento político de los alaveses de la Edad Moderna, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 55 (1985), 615-638. or.

izango zituen eraginei buruzko jarrera, eta azkenik, Larramendik jarritako hipotesiak “Gaztelatik bereizteko dekretua” izanez gero⁴².

Duela gutxiago, Antoine d’Abbadie euskaltzale frantziar-irlandarra⁴³ iker-tzen jardun du, baita Fidel de Sagarmínaga ere, bera baita Euskal Herriko foruzaletasunaren figura garrantzitsuenetako bat eta *Memorias Históricas de Vizcaya (Bizkaiko Oroimen Historikoak)* lanaren egilea. Lan horrek foruei eta sistemaren krisiari buruz 1868 eta 1889 urteen artean idatzitako bost lan handiren bilduma da⁴⁴. Halaber, Historiaren Errege Akademiaren Hiztegiaren motibazioak, “modus operandi”, egileak eta laguntzaileak aztertu zituen⁴⁵. Gaur egun, Nevadako Unibertsitatean *Distinguished Scholarship William A. Douglass* katedraren esparruan egindako ikerlana moldiztegi du, lehenago aipatu bezala. Obra horretan, Juan Antonio Llorente kalonje errioxarraren lana sakon aztertzen du, bera izan baitzen euskal foruen ezagutarazle nagusia eta azken bi mendeetako produkzio zientifikoa eta ekintza politikoa in-spiratu dituen Eskola historiografikoaren sortzailea.

6.6. Foraltasunaren krisia eta euskal eskubide historiko deritzenak

Foraltasunaren krisia, aurrekariak eta euskal eskubide historikoak iker-tzeko lanak izan dira, gehienbat, Gregorio Monrealen ikerkuntza-jardueraren xede. Hori zor zaio, neurri handi batean, haren esperientzia politikoari. Izan ere, foraltasunaren krisiak eta eskubide historikoen inguruko arazoak eragin zuzena izan zuten Espainiako 1978ko Konstituzioan, baita *carta magnaren* ondorengo interpretazioan ere. Euskal ordezkariak ikuspegi historizista hartu zuen Gorte Konstituziogileetan, Koroarekiko itunaren eta eskubide historikoen aldarrikapenaren inguruan⁴⁶. Hala ere, legebiltzarkideei eta klase politikoari foraltasunaren oinarriari buruzko prestakuntza ematea beharrez-koa zela zirudien, eta zeregin horretan hainbat kolaborazio egin zituen heda-

42. Larramendi: madurez y crisis del sistema foral. *Manuel Larramendi: Hirugarren mendeu-rena*, Andoain: Andoingo Udala, 1992, 91-135. or.

43. El ideario jurídico de Antoine d’Abbadie. *Antoine d’Abbadie, 1887-1897. Congrès Inter-national, Hendaia-Sara*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998, 411-422. or.

44. Sagarmínaga (1830-1894), intérprete de la Constitución histórica vizcaína y heraldo de una nueva política vasca de recuperación de los Fueros, *Notitia Vasconiae. Revista de Derecho Histórico y Autonomo de Vasconia*, 1 (2002), 20-88. or.

45. Posibles motivaciones, “modus operandi” y autores y colaboradores del Diccionario, *Diccionario Geográfico-Histórico de España por la Real Academia de la Historia*, Donostia/San Sebastián, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa, 2005, 19-25. or.

46. Euskal Herriak demokraziara egindako trantsizioari buruz duela hamarkada bat eginda-ko gogoetan agerian utzi zuen bezala: Intervención de protagonistas españoles [Gregorio Monreal]. Miguel Herrero de Miñón (argit.), *La transición democrática en España/A Transição Democrática em Espanha*, I, Bilbo: Fundación BBV, 1999, 27-32. or. Gregorio Monrealen gogoeta-rekin batera beste eragile politiko eta sindikal batzuen ere azaltzen da argitalpen honetan, hala nola Santiago Carrillorena, Felipe Gonzálezena, Manuel Fragaena, Jordi Pujolena eta Nicolás Redondorena.

pen zabaleko hiru obratan⁴⁷. Berrikiago, gaiari buruzko ikuspegi berriak eskaini ditu bi hitzaurretan⁴⁸ eta izaera akademikoko zenbait hurbilketa, 1998an⁴⁹, 2000n⁵⁰, 2003an⁵¹ eta 2005ean⁵².

Estudios dedicados a la Memoria del Profesor L. M. Díez de Salazar (L. M. Díez de Salazar irakaslearen oroimenari eskainitako ikerketak) izeneko obran artikulu luze bat argitaratu zuen Gipuzkoako XVIII. mendeko merkataritza-askatasunari buruz. Ezagun da merkataritza-askatasuna eta aduanak garrantzi handiko erakundeak zirela euskal foru-erregimenean, eta oinarriko gaiak dira forutasunaren azken etapa ulertzeko. Lan horretan aztertu zituen merkataritza-askatasunaren kontzeptua eta haren adierazpen guztiak XVIII. mendera arte, foruen ikuspegitik, bai atzerriko lurraldeekiko harremanaren aldetik baita Monarkiako gainerako lurraldeekiko harremanaren aldetik ere. Sistemako lehenengo krisi larria aztertu zuen, hau da, Aduanak lekuz aldatzeak eragindakoa, 1717 eta 1719 bitartean, baita ondorengo Patiñoren Kapitulatua ere, 1728koa. Kapitulatu horren arauen deskribapenari arreta berezia jarri zion, merkataritza-askatasuna 1841ean amaitu arte indarrean egon baitzen. Kapitulatuak XVIII. mendean zehar izandako aplikazio gorabeheratsua aipatzen da lanaren azken zatian⁵³.

47. Hitzaurrea (5-8. or.), ¿Qué es la Constitución? (9- 31. or.), Configuración autonómica de la Constitución estatal (51-90. or.). *Euskadi ante la Constitución*, Zarauz: Erein, 1978. Evolución histórica del poder político vasco (11-18. or.), Fueros versus Estatuto de Autonomía (31-40. or.), La Preautonomía: el Consejo General del País Vasco (60-68. or.), Integración territorial y organización interna (71-80. or.). *Euskadi y el Estatuto de Autonomía*, Donostia: Erein, 1979. Fundamentos histórico-constitucionales y proyectos autonómicos de Euskadi. *Federalismo y Regionalismo*, Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1979, 487-518. or.

48. José Manuel CASTELLS ARTETXEren lanaren hitzaurrea: *Reflexiones sobre la Autonomía Vasca*, Oñati: Herri Ardularitza Euskal Erakundea, 1986, 7-19. or. Gurutz JAUREGUIren, José Manuel CASTELLSen eta Xabier IRIONDOren lanaren hitzaurrea: *La institucionalización jurídica y política de Vasconia*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 13-32. or.

49. De los Fueros y la Autonomía posforal a la cláusula de reserva de los derechos históricos. *Foralismo, Derechos históricos y Democracia*, Bilbo: BBV, 1998. Aukeratua eta berriro argitaratua: Miguel Herrero de Miñón eta Ernest Lluch (argit.), *Derechos históricos y constitucionalismo útil*, Bartzelona: Editorial Crítica, 2001, 89-103. or.

50. La diferencia foral en las constituciones españolas. *Estado Autonómico y Hecho Diferencial de Vasconia*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2000, 125-144. or. Fueros de los territorios vascos y unidad constitucional española. Mercedes Arbaiza Villalonga (argit.), *La cuestión vasca. Una mirada desde la Historia*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000, 59-86. or.

51. La base foral del Plan del Lehendakari Ibarretxe. *Estudios sobre la Propuesta política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe*, Oñati, Herri Ardularitza Euskal Erakundea, 2003, 117-146. or.

52. Actualización de los Derechos Históricos, *Revista Vasca de Administración Pública*, 73-2 (2005), 277-285. or.

53. La libertad de comercio en Guipúzcoa en el siglo XVIII, *Estudios dedicados a la Memoria del Profesor L. M. Díez de Salazar*, 1. alea, Bilbo: UPV/EHUko argitalpen-zerbitzua, 1992, 601-646. or.

Euskal eskubide historikoak eguneratzeari buruz Donostian egindako jardunaldietan, 1985ean, eskubide horien nolakotasuna eta eragin litzaketen arazoari buruzko txostena idazteko agindu zioten Gregorio Monreali⁵⁴. Bestalde, *Munduko Euskal Kongresuan*, Euskal Herriko foru erakunde publikoen krisiari buruzko txostena eskatu zioten. Saiatu zen azaltzen nola foru lurraldeen eta Monarkiaren arteko mende batzuetako harreman gogobetegarria Estatu-ko arazo bihurtu zen XVIII. mendearen bukaeran, eta forutasun organiko eta instituzionalaren gorabeherak XIX. mendean, Cánovasen 1876ko uztailaren 21eko Legea indarrean jarri arte⁵⁵.

Beste hiru Euskal Probintziek eta Nafarroak XIX. mendean zehar izandako berezitasuna ikertu zuen, baita 1918tik aurrera, batez ere 1931-1936 eta 1937tik aurrera probintziaz haraindiko autonomia erregimena sortzeko egindako ahaleginak ere. Horren ondorioz, bi lan mardul argitaratu zituen, euskaldunak eta Estatu konstituzionala gai hartuta. Lehenengoa 1991n argitaratu zuen, Deustuko Unibertsitateak M^a Ángeles Larrea irakasleari egindako omenaldi batean⁵⁶: “Autonomia basca contemporània (algunes connexions amb Catalunya)” (“Egungo euskal autonomia: zenbait konexio Kataluniarekin”), urte berean *Revista de Catalunya* aldizkarian argitaratuta⁵⁷. Oso gaizki ulertutako arazo bat azaltzeko ahalegina zen. Antzeko ahalegina egin zuen Idoia Estornes Zubizarretak bere doktoretza-tesian, Gregorio Monrealek idatzitako hitzaurrea zuela⁵⁸.

Udal-erregimenean ere arreta jarri du Monrealek. Hala, 1992an, jardunaldi batzuk izan ziren Donostian, *Euskal Herriaren eskubide historikoen funts juridikoa tokiko eremuan* aztergai hartuta. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako zituen eta Monreali udal-erregimenaren eboluzioa ikertzeko txostena agindu zioten, 1841 arte gutxi gorabehera bere horretan iraun zuen foru-udaletxeetatik hasita, Cánovasen 1876ko Legearen osteko udal-legeek ezarritako erreforma eta kontzertu-espezialitateetaraino⁵⁹.

54. Entidad y problemas de la cuestión de los derechos históricos vascos. *Jornadas de Estudio sobre la actualización de los derechos históricos vascos*, Bilbo: UPV/EHUko argitalpen-zerbitzua, 1986, 48-82. or.

55. La crisis de las instituciones forales públicas vascas. *Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen. Congreso de Historia de Euskal Herria, II Congreso Mundial Vasco*, III, Donostia: Txertoa, 1988, 3-36. or.

56. Los vascos ante el Estado constitucional, *Ernaoa, Revista Vasca de Historia de Euskal Herria/Euskal Historiazko Aldizkaria*, María Angeles Larrearen omenaldia, 1991, 11-40. or.

57. Autonomia basca contemporània (algunes connexions amb Catalunya), *Revista de Catalunya*, 57 (1991), 65-84. or.

58. Idoia ESTORNÉS ZUBIZARRETAren lanaren hitzaurrea: La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 17-21. or.

59. Del municipio foral al municipio concertista, *Cuestiones particulares del régimen foral y local vasco*, Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde, 1994, 243-275. or.

Euskal Herriko eskubide historikoen artean, Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoak azpimarratzekoak dira, haien garrantziagatik. Erakunde bizki horien analisi burutsuak *El territori i les seves institucions històriques (Lurraldea eta haren erakunde historikoak)* izeneko jardunaldietan aurkeztu zituen eta, beharbada, gai horri buruz dagoen analisisirik argigarriena da (1999)⁶⁰. Gaiari berriz ere heldu eta ikuspegi osagarriak aurkeztu zituen, “El Concierto Económico Vasco: la construcción social del Derecho en el tiempo” (“Euskal Kontzertu Ekonomikoa: Zuzenbidearen gizarte-eraikuntza denboran zehar”) izeneko lanaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kontzertuaren XXV. urteurrena ospatzeko antolatutako Kongresuaren hasierako hitzaldian⁶¹.

6.7. Euskararen erregimen juridiko historikoa

Gregorio Monreak izandako kezka nagusietako bat berak parte hartu duen erakunde bidez euskara bultzatzekoa izan da. Berak ere ahalegin handia egin zuen ikasteko, eta ez zuen ahaleginik aurreztu Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzaren planifikazioa garatzeko. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara garatzeko plan bat ere bultzatu zuen, 1996an, baina ezerezean geratu zen. Euskararekiko maitasunak bultzatuta, hainbat argitalpen proiektutan parte hartu du, hala nola BBVAren *Klasikoak* bilduman edo Eusko Ikaskuntzaren *Eleria* aldizkarian, proiektu horien kalitate akademikoa sorrarazi duen lan anonimoaren bidez.

Haren jarduera militantea idatzietan ere gauzatu da. Trantsizioko urteetan, hizkuntzaren arazoa eta haren arautze juridikoa bizitasunez sentitzen zen Euskal Herrian, eta Gregorio Monreal, zurrunbilo haren erdian kokaturik, ez zion errealitate hari bizkarra eman, aitzitik, gogo biziz eraiki zuen, bere semeak euskaraz eskolatuta. Euskaltzaindiak *Euskararen Liburu Zuria* argitaratu zuen 1978an, eta “hainbat faktorek euskararen gainean duten eraginari” buruzko atalean, iraganean hizkuntzaren erabilera soziala muga edo baldintza lezaketen faktore politiko-administratiboei buruzko txostena idazteko eskatu zien berari eta Margarita Ricari⁶². Urte berean itzuli zen gai berera, “Elizaren praxia euskarari buruz” izeneko lanarekin⁶³.

60. Convenio y Concierptos Económicos con el Estado en Vasconia. *El territori i les seves institucions històriques*. Actes. Ascó, 28, 29 i 30 de novembre de 1997, I, Bartzelona: Fundació Noguera eta Universitat Pompeu Fabra, 1999, 385-440. or. Haren laburpen eguneratua argitaratu zuen hemen: El origen y construcción del derecho histórico del Convenio y de los Concierptos Económicos (1841-1991), *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho*, 18 (2002), 353-365. or.

61. El Concierto Económico Vasco: la construcción social del Derecho en el tiempo. R. Jimeno Aranguren eta V. Tamayo Salaberría, *Gipuzkoa y el Estado. Relaciones fiscales y tributarias (1696-2005)*, Donostia/San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005, 11-26. or.

62. RICA ESNAOLA, Margaritarekin batera, La incidencia de los diversos factores sobre el euskera. Los factores político-administrativos. *Libro Blanco del euskera*, Bilbo: Euskaltzaindia/Real Academia de Lengua Vasca, 1978, 339-383. or.

63. Elizaren praxia euskarari buruz. *Jaunaren Deia*, 1978, 30-40. or.

1990ean, euskarak Nafarroan duen ofizialtasunari buruzko txosten zaba- la agindu zion Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, *Euskararen erregi- men juridikoari buruzko jardunaldi* batzuetarako. Nafarroan XVIII. mendetik aurrera euskararen araudiaren inguruan izandako aurrekarien analisiaren jarraipena egin zuen, batez ere 1876aren ostean izandako berpizkundearen ostean. Lanaren muinaren abiapuntua 1980ko ofizialtasun-adierazpena da, gero 1982ko Foruaren Hobekuntzak 9. artikulua eta 1986ko Euskararen Legeak hizkuntzari ematen dioten tratamendua jorratzen du, kasu batean eta bestean ikuspegi historiko-juridikoa emanda, hau da, arauak emateko urra- tsen jarraipena eginez. Haren ekarpen nagusiak honako hauek izan ziren: hizkuntzaren legezko izendapena, literatura-arauak eta euskalkiek hizkuntza- eredua zehazteko duten eragina eta ofizialtasunaren irismena hizkuntza-gune ezberdinetan –euskal gunean, gune mistoan eta erdal gunean–, baita arau- diak jasotako beste alderdi batzuk ere: Administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta, oro har, gizartean erabiltzea⁶⁴.

Txostenaren alderdi historizista nagusia argitara ekarri zuen berriro, bai *Euskara aldizkaria* berrargitaratu zeneko aurkezpenean (1996)⁶⁵, bai Nafarro- ako euskararen legearen 15. urteurrena zela-eta *Eusko Ikaskuntzen Nazioar- teko Aldizkarian* argitaratutako honako artikulua honetan: “Origen de la ley del vascuence de Navarra” (“Nafarroako euskararen legearen jatorria”). Artikulu horretan, LORAFNAk eta Euskararen Legeak euskararen ofizialtasunari eman- dako izaera murriztaileari buruzko analisia sakondu eta eguneratu zuen⁶⁶. Ikerketa hori *Eleria* aldizkariak euskaratu zuen⁶⁷, lege horren 15 urteetako emaitzari buruzko monografiko batean. Urteurren haren kariatz, aldizkariak mahainguru bat ere antolatatu zuen eta Monrealek berak ere aktiboki parte hartu zuen⁶⁸. Orobat, euskarak Nafarroako Unibertsitate Publikoan duen ego- era juridikoari buruzko analisi zehatza egin zuen, eta *Jakin* aldizkariak argita- ratu zuen, Euskal herriko Unibertsitateetako euskararen egoerari buruzko zenbaki monografiko batean (1997)⁶⁹.

Euskararen erregimen juridikoari buruzko lanak oso baliagarriak izan dira erakundeetan eta gizarte-eragileen artean, Euskararen Legearen erabilerari buruzko eztabaidan.

64. La oficialidad del euskara en Navarra. *Jornadas sobre la oficialidad del euskara*, Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1990, 115-163. or.

65. [Aurkezpena/Presentación], *Revista Euskara*, 1 (1858). Faksimil berrargitalpena, Donos- tia: Eusko Ikaskuntza, 1996, V-VIII. or.

66. Origen de la Ley del vascuence de Navarra, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 46-2 (2001), 517-543. or.

67. Nafarroako euskararen legearen jatorria, *Eleria. Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 11 (2003), 7-18. or.

68. Hizkuntzaren gatazka, *Eleria. Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 11 (2003), 27-32. or.

69. Euskara eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa, *Jakin*, 100 (1997), 73-80. or.

6.8. Euskal kultura

Gregorio Monreal mende arteko garai honetako euskal kulturaren erreferentzia nagusietako bat bihurtu da, haren ezagutzagatik, ibilbideagatik eta ekarpen pertsonalagatik. Hortaz, ez da harritzekoa Minnesotan, 1986an, Espainiako Estatuko nazionalitateetako kultura aztergai hartuta egindako jardunaldietan euskal kulturari buruzko txostena aurkezteko arduraduna izan izana⁷⁰.

Gaitasun horiek direla-eta *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren* zuzendaritza bereganatu zuen, eta bokazioz eta sinesgarritasunez bete zuen kargua. Aldizkariaren zenbaki guztiak biltzen zituen CD-Romaren edizioa zela-eta idatzitako aurkezpena aldizkariaren 46-1 zenbakian argitaratu zen (2001). *RIE*vek 1907 eta 2000 urte bitartean izandako eboluzioa jasotzen zuen. Aldizkaria sortu zen unetik –Julio de Urquijok zuzenduta eta laster Eusko Ikaskuntzan sartuta–, mundu zabaleko euskaltzaleentzako elkargunea bihurtu zen eta haren edukiak funtsezko ekarpena izan ziren euskal kulturarentzat. Francoren diktadurak derrigortuta berrogei urtez etenda egon eta gero, *RIE*V zientziaren eta kulturaren alorreko eginkizuna mendearen bukaerako testuingurura egokitzen saiatu zen, eta garai haietan, zeregin hori burutzeko arduraduna Monreal irakaslea izan zen.

Halaber, herrialdeko kulturaren begirale pribilegiatua eta zuzenbidearen historialaria den aldetik, txosten bat aurkeztu zuen 2001ean, “El presente vasco condicionado por el pasado” (“Euskal Herriaren oraina, iraganak baldintzatuta”), Eusko Ikaskuntzak antolatutako *Zientzia eta euskal kultura eta sare telematikoak* izeneko kongresuan⁷¹.

6.9. Unibertsitateari buruzko ikerketak

Unibertsitatearen historia ikergai izan du beti Gregorio Monrealek. Hala, 1981ean, egungo Unibertsitateari buruzko sinposio batean parte hartu zuen, Euskal Herriko Unibertsitatearen problematikari eskainitako txosten baten bidez⁷². Hurrengo urtean, berak idatzitako 20 orrialdeko testu bat jaso zuen *Muga* aldizkariak, Europako mendebaldean Unibertsitateari buruz lehen eta orain nagusi izandako planteamenduei buruz⁷³. 1985ean, hitzaurrea idatzi

70. Notas sobre cultura nacional vasca. Cristina Duplaa eta Gwendolyn Barnes (argit.), *Las nacionalidades del Estado español: una problemática cultural*, Minneapolis, Minnesota (AEB): Institute for the Study of Ideologies and Literatures, 1986, 97-116. or.

71. El presente vasco condicionado por el pasado. *Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas*. Eusko Ikaskuntzen XV. Kongresua, Donostia, Iruñea, Baiona 2001, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002, 337-352. or.

72. Problemática de la Universidad del País Vasco. *Simposio la Universidad Hoy/ Unibertsitatea gaur Simposioa*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 1982, 295-318. or.

73. La Universidad ayer y hoy, *Muga*, (1982ko azaroa), 16-33. or.

zuen Ignacio Barriolaren liburu batean, hain zuzen *Participación guipuzcoana en la creación de la Universidad oficial del País Vasco (Gipuzkoarren parte-hartzea Euskal Herriko Unibertsitate ofizialaren sorreran)* izenekoan⁷⁴. Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseilu Sozialak Unibertsitatearen finantzaketari eta egiturari buruz antolatutako beste sinposio batean (1991) ere parte hartu zuen erakundeko errektore ohiak, gai honekin: “Iragana eta oraina UPV/EHUREN egituran”⁷⁵. Gai hori aztergai izango zuen berriz ere 1998an⁷⁶, 2005ean⁷⁷ eta 2008an⁷⁸.

7. EMAN TA ZABAL ZAZU

Duela gutxi, Euskal Herriko Unibertsitateko egungo errektoreak paragrafo bat eskatu zion Gregorio Monreali, erakunde-liburuan txertatzeko. Erakundearen lema hizpide hartuta, berak errektore zenean jarria, honako hau idatzi zuen:

XIX. mendearen erdialdean, bizkaitarrek mendez mendez garatu eta defenditutako askatasun politikoen eta zibikoen hazia munduan zehar barreiatzea proposatu zuen Iparragirrek, Foruen ereserkian. EMAN TA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA –Gernikako arbolarena– ahapaldiak, mende hartako euskaldunen itxaropenak soiltasunez laburtzen zituen bihotz-bihotzetiko lemak, berezi eta preziatua den zerbait lorpen unibertsal bilakatzeko nahia adierazten du. Egungo erantzukizuna, berriz, Euskal Herriko Unibertsitate gazteak lanaren bidez lortutako frutua mundu zabalean zabal dadin lortzea da.

Eman ta zabal zazu, badirudi esaera horrek Gregorio Monreal bera gidatu duela haren bizitzaren ibilbide poliedrikoan. Mundu akademikoan eman eta zabaltzeko, eskuzabaltasuna, integritatea, talentua eta gaitasuna behar dira. Berarengan, espiritua ameslaria eta oinak lurrean dituenaren argitasuna ez dira kontraesanean sartzen; haren itxurazko hoztasunaren atzean, jenio lotsatia dago, bihotz sentikorreko zaldun ibiltaria, galtzera bideratutako kausa noble baten alde ezpata atera eta dueluan borrokatzeko zalantzarik izango ez lukeena. Balioen krisia nagusi den gizarte honetan guztiz ezohikoa den erabateko eskuzabaltasun hori egiazta dezakegu haren lankide eta dizipuluok.

74. Ignacio BARRIOLAren liburuaren hitzaurrea: *Participación guipuzcoana en la creación de la Universidad oficial del País Vasco*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985, I-X. or.

75. El pasado y el presente en la estructura de la UPV/EHU. *Euskal Herriko Unibertsitatearen Finantzapen eta Egitura/Financiación y Estructura de la Universidad del País Vasco (1992ko Abenduaren 3 eta 4, Donostia-San Sebastián; 3 y 4 de diciembre de 1992)*, Bilbo: Consejo Social de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 1994, 89-101. or.

76. Pasado y presente de la institución universitaria. *La UPV a debate*, Donostia: Erein, 1998, 13-53. or.

77. El XXV Aniversario de la creación de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, *op. cit.*

78. Pello SALABURUREN liburuaren aipamena: La Universidad en la encrucijada. Europa y EEUU (Madrid, 2007), *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 53-1 (2008), 336-343. or.

Borrokalaria ilusionatua eta langile nekazina izanik, baita unerik latzenetan ere, aurrera jarraitzen du hainbat ikasketa- eta ikerketa-proiektu aurrera eramanean. “Lanean eta lan gose”, halaxe deskribatu zuen Eburne Elizondo kazetari iruindarrak, 2007ko abuztuaren 18an, *Berría* egunkarian argitaratutako elkarrizketan, Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa saria zela eta. Osasuna lagun izan dezala.

Roldan Jimeno Aranguren



Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa Saria Gregorio Monreali, 2007. Sixto Jimenez, Juan M^a Otaegi, Gregorio Monreal